


ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

193n. zenbakia / zezeilla/otsailla
1995



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



GASTEIZ'KO GOTZAIN-ELEIZ BARRIA

- AMETS AUNDIA
- ASIERA EDERRA
- AMAIERA APALA

ORAIN ETA LEEN

Nire moduan irakurgaiari zaletasuna dauksanak, badauka zalantza artean naikoa ibilli bearrik.

Eta berez gaiñera, ezustean.

Ez dau besterik egin bear, liburua dala, egunkaria dala, eskuetan artu eta zabaldu. Begien aurrera une baten etorriko jakoz zertaz arduratu, itaundu, arritu edo zalantzan jarri.

Irakurgaiari beti aurkituko dau adimenan sartzen ez dan edo bere eritxiaz bat ez datorren esaldiren bat edo beste, errugabe izan daiteken esaldirik arruntena beste edozein berbaren erruagaitik ulerteziña biurtuta.

Eta bagoaz betiko lelora: Nork aginduta esan, batez be idatzi bear da orain, zoritxarreko "propioa" itza, leen beti esan dan "ber-beraren" euskal itzari ostikadea emonda?

Edonork erantzungo dau, joskeraren arauak gorderik, bakoitzak gura dauan lez idatzi leikela.

Au, ondo erantzunda dagola uste arren, salbuespenak be badirala eta ez gitxi esan bear, batezbe jatorrizko, benetako euskal-itzak albo batera itzita euren lekuan erderazkoak jarri, esaldia bera be, ain biurria biurtuta zer esan gura ete dauan ago-zabalik eta ulertu eziñean norbera jartzen danean, kasu onetan bezela.

Ona emen auziaren esaldia: "Bere idazkera propioa".

Esaldi au euskaldun batentzat –eta edonorentzat– "Berberaren idazkera" (edo "bere idazkera") dan ezker, erderara biurturik, ez dakigu "Su escritura propia" edo "su escritura apropiada" edo zer edan gura ete dauan. Obeto esanda euskeraz ez diño ezer.

Beraz, ain erreza izan leitekean edo dan esaldia, "propioa" itzaren erruagaitik ulerteziña biurtzen da.

Onetara pentsatu eta berbak, esaldiak, zalantzan jarri bear ziranik ez neban sekula uste izango.

Euskal pentsakera aldatu egin bear ete da orain, idazteko diran era edo modu barriak buruan sartuaz egiteko?

Baiña gauza bat da izkuntza gaurkotzea eta beste bat euskal-pentsakera aldatuta, erdelduntzea, erdera ber-beraren joskerea erabilliz.

Konkuratu barik, edo? Bestela "propioa", "kontrarioa" eta olakoak irakurtean, musturreko bat aurrez-aurre edo aurpegiaren erdian artuko bagendu lez izango litzake.

Gu lako bateri pentsamentu illunak jatorkoz burura: An-tza, orain ez dago iñor gure pentsakeraz bat datorrenik.

Bakardadean geratu gara euskaldunok kanpotarren eskuetan, erderaren arian pentsamoldea zuzendu bear dogu-la. Euskeradun batentzat baiña, lan gogorra, eziñezkoa.

Eta orain, lengoan jarraituz, zer dala-ta "propioa" berba ori idatzi bear? Zer ikusirik ete dauka euskaldunen izkuntzak erdeldunenakaz? Zer zor dautso euskereak erdereari augaitik eta besteagaitik, batean eta bestean, betiko lelo bardiñagaz ibilteko? Nork aginduta aldatu bear dira euskerazko itzak

erderazkoakaitik eta batzutan euskerazkoak erderaren joske-ran idatzita?

Onak, ipuin antzeko bat dakarst gogora, au da, milira edo soldadutzara doan euskaldun mutillarena.

Bere sarjentoa edo dana-dalakoa, (bere nagusia esan gura dot), beregana zuzendu eta itaunka asten jakonean. Bera, gizajoa, euskaldun utsa dalarik ezin dautso arin-arin erderaz erantzun (beintzat ez sarjentoaren premiñak eskatzen dau-tson beste), beronen, sarjentoaren asarrea lortu arteraiño.

Beraz, ez bakarrik Nagusiaren asarrea baretzeagaitik, bai-ña bai, benetan egia dalako, gure mutillak eziña dala bere-tzat ain arin erantzun egiterik, diñotso, bere euskal pentsa-mentua erderara biurtzerakoan, alegiñak egiten, denborea edo astia bear ebala-ta.

Bestelakoa da oraingo maixu eta irakasle askoren akatsa, arazoa. Erderaren pentsamentuan murgildurik egoteak, erde-raren antzera edo erara ulertu eta itzuli egitera daroaz, eta auxe, ez besterik, zioa edo zergaitia euskerea bere azken ordura, eriotzara eroango dauana.

Orain, beste ipuin bat esango neuskizue ipuiña balitz, baiña neuri jazotakoa danez, gertakizuna dalakoan esango dautsuet.

"Aldi aretan Gazteiz'ko osagille batengana joaten nin-tzan, astero, goizetan, eta itzuli bidean, ia beti, Orozko'ko denda edo taberna baten gelditzen nintzan ogitan, ango ogia gozoo zala-ta.

Egun baten baiña, beste egunetan baiño berendutxuago zalako edo, Orozko'tik pasakeran, dendan bertan, gizon mardul bat egoten zan leku berean, mutiko gastetxu bat ego-ala gertatu zan.

Ni, denda-barrura sartu eta: –Gaur ez dago aita etxean ala? –itaundu neutsan–. Ni kanpotarra izanik, berak, muti-koa?, erderaz be baekiala erakutsi gura izango eustan, edo beintzat bazala orrenbesterako jakitun, edo bai niri erantzuteko beste, eta: –Aita está tirando la siesta– erantzun eustan sendo eta zaratasu".

Badakigu, orraitio, izkuntzen ordaiñak eta esangureak zelakoak diran itzultzean, eta izkuntza bakoitzak dauazan berezitasun eta oiturak.

Amaitzeko, bear dan begirunez, jazoera bat esango dot, arin-arin:

"Eguerduko egun baten, bazkolorduan, ezteguak ospatzen ziran.

Zaratea eta barre-argara izaten da onelako lekuetan, baz-kaltzeko jantokietan, esan gura dot (etzan, orduan gertakizu-naz iñor konturatu izan).

Maiak, zabalak izaten dura eta euren gaiñean, egon be, tresna ugari egoten da, platerak etabar... Aurrez-aurre, maian besteko aldean, bere edontzia nigana luzatu edo urreratu eta ardao apur bat eskatuaz batera, badiñost lagun batek: –Emon eiztazu ardao gitxi bat, mesedez–".

AZKAR EDO AZKARREGI?

Mundua oso azkar doafa inork ezin dau ukatu, itsuak berak ere ez. Atzo barri-barria zana, gaur zaartuta geratu da, ia ez dau ezer-tarako bafio. Gauza barriei uko egitea munduaren gurpifetan, erradio artean, makifa sartzea fitzateke.

Inori ez jako gaur egun gogoratzen **errekara joatea erropea garbitzeko**, eta ez daroan baino loiago ekarriko feukefako, atzerakuntza bat besterik ez dafako baino, naiz eta urte batzuk direfa errietan gauza arrunta izan.

Baina aurrerapen guztiak abantaifakaz batera arriskuak ere ekartzen dabez, aundiagoak edo txikiagoak, baina arriskuak azken batean.

Autoak edonora eta azkar eroan daike gizona, baina beste feku batzuren artean iferrira ere bai.

Betiko zerean sartzen gara orduan: arriskua ez dago makinetan, egiten dan erabifpenean baino.

Beraz ez dira makinak arazodunak, gizonok baino.

Afde orretatik begiratzen dabe Estatu Batuetako arma zafeak ere. Izkifuen safmenta fibrea afdarrikatzen dabe. Beste arrazoi batzuren artean onefakoak jartzen dabez: fapurra, badakianez jende armatuak bere bizitza eta gauzak defendatzeko aukera daukana, ez da ausartuko gaiztakeria egiten.

Jakina, arrazoi au zafantzatan jartzekoa da, batez ere urtean zear armen erruz bertan iften direnen muftzoa zenbatekoa dan kontutan artzen badogu. Baina au ere ez da geratzen erantzun barik, ez dira armak ifketen errudunak, erabifitzen dabezen gizonak baino. Norbait if nai ezkerero, ez dago pistofa, erriife edo antzerako gauzen bearrrik, eguneroko ogia ebagitzeko darabifgun aiztoa naikoa da.

Baina ez dot armek edo autoek daukiezan arriskuetaz berba egin gura, asko idatzi da euretaz eta.

Badira beste tresna batzuk gure etxeetan sartzen direnak eta euren arriskuei buruz ezer gitxi esan da. Or da ordenagaiua, eta aspaifdion urrutizkin mugikorra. Eta baztertuta itzi barik tensio aundiko argi ariak. Ordenagailuari buruz stress sortzaifefa dafa esan da, eta baita pantaifak ere arriskutsuak izan daitekezafa.

Onen eredia tefebistetan begiratu bear dogu: Nork ez dau entzuntz inoiz tefebista ikusteko ez dafa urbifegi jarri bear? Batzuk, tefebista eta ikusfearen artean gitxienez metro erditik metro bitarainoko tartea iztea komendatzen dabe.

Kontutan izan ordenagaiu baten pantaifefa tefebista bat dafa azken batean, eta darabifenaren eta pantaifaren artean egoten dan tartea oso gitxitan izaten da metro batekoa baino aundiagoa. Beronen afde, eta egi guztia esateko, aspaifdian egiten diren pantaifak ("radiazio txikikoak") ez dabefa orrenbesteko arriskurik esan bear da, eta gainera denpora dafa oso zabafduta dagoz radiazio orren aurkako babesfeak, pantaifefa aurrean jartzen diran kristaf antzekoak ain zuzen.

Kale eta bazterretan azkenengo urte pare batean, ia ez jaku arrarofa egiten bataren bat urrutizkin mogikor baten bidez berba egiten ikustea. Batzuren kasuan arrokeri utsa, beste batzuren kasuan bearrizana, edo bitxikeria, edo fana,... gauza edozein fekutan aurkitu geinkezefa. Eta asi baino ez da egin. Ideia bat egiteko euren tamainua eta safneurria, orain amar urte eukien %20 a da.

Bere teknofogia azken batean irratian oinarrizten da. Izatez irratia bat baino ez dira, ain zabafduta dagozan esku irratia edo wafky-tafkien antzera. Esku irratia darabifezenei ere, antenak

begietatik arra batera eukitea komendatzen jake, burutik eta begietatik aalik eta urrunen. Irrati frekuentziak zenbat eta garaigoak izan geroago eta arriskutsuagoak direfa dinofe jakintsuek. Esku irratia 150 eta 450 Mhz-etan egiten dabe lan. Urrutizkin mugikorrak 900 Mhz-etan dabifz, eta gainera, berba egiterakoan euren antena txikia buruaren ondo-ondoan eukiten da.

Arriskutsua da ori? Adituen esanei kasu egin ezkerero danatarikofa entzungo dogu: baiezkoa, ezezkoa eta bearbada-zkoa ere bai. Ez dago frogatuta frekuentzi garaiak kaftegarriak izan daitekezanik, beintzat aipatzen dodazanak (garaigoak bai jakina). Izan ere adituen batek arriskuari buruz zeozer esan orduko, beste afdetik bereafa urtetzen da beste jakintsuren baten kontrakofa, aurrekoak beste arrazoi jarrita.

"Kasuafitatea" besterik ez ete da frekuentzi aundien eta minbizi mota batzuren zerrikusia? Onen inguruan izan dira epaiketak Estatu Batuetan, gaixoak urrutizkin egifefari feporatuz bere gaisotasunaren erruak.

Baina zein gizon sartu daiteke Motorofa, Sony, Nec eta antzerako fabriken aurka epaiketa baten? Epaiketa orretan fekuo izan ziren adituek medikuntzaren afde edo aipatutako fabriken alde egozan fan egiten? Ez da erreza jakitea, eta gitxiago gurelako batzuentzat, baina zaratea danean zeozer bada, aizea besterik ez bada ere.

Mifaka beste eredu jarri leitekez: "Microondas" deiturikoak, zentraif nukfearen inguruak, edo eurak otzitzeko erabifitzen dan ura... Gauzea inguruan daukaguzafa da, eta apurka-apurka eukite-ara oitu garafa, batzuk eurak barik ia bizitzen ere ez dakiafarik.

Bearbada, gauzak bere neurrian kafte-rik ez dabenez egiten, trasto barri oneekaz ere antzerakofa gertatzen da, baina zein da neurri egokia?

Ameriketako medikuntza fiburuetan "guiskia" neurrian artuta ona izan daitekefa esaten ei da, baina fiburu orreek ez ei dabe zeazten zein dan neurri egokia.

Beraz, aspirina bat ona izaten da buruko minerako, baina pote osoa artzea ez dago komendatuko dauanik, gauzak bere neurria dauke eta geigikeriak karu ordaintzen dira.

Era berean azkartasuna ona izan arren, arinegi joatearen emaitzak itzefak izan daitekez.

Enrike Itxasafde

EUSKERAZALEAK IPUIN-SARIKETA: 1994

- 1.º SARIA: Idazfeaf: Iñaki Goikoetxea
2n. SARIA: Idazfeaf: Anes Arrinda
3n. SARIA: Idazfeaf: Juan Jose Bergaretxea
4n. SARIA: Idazfeaf: Asier Legarreta

Oarra: Ipuin guzti oneik, datorren iffean asita, ZER afdizfarian argitaratuko dira.

EUSKERAZALEAK

EUSKALERRI EURITSUA

EGURATSA

Negu-giroan gagozen artean, euria eta otza ugari doguz Euskalerraren alde onetan. Edurra be ez urrin.

Ori dala-ta, gure lurraldeari begira azterketa labur bat egitea bururatu jaku.

Munduko lurralde bakoitxak bere egurats-giroa dau: Batzuk ia urte osoa igaroten dabe edur-artean; beste batzuk, luraren garri-inguruan, urterik geiena igaroten dabe beroak kizkaltzen; erri batzuk are-artean eta basa-mortu legorretan bizi dira; beste batzuk zugatzez eta lorez beterik dagozan oian zabaletan.

EUSKALERRIAN

Gure lurralde onetako giroa be ez da toki guztietan bardiña, baiña geienean biguna ta gozoa da. Gure asabak aukeratu-bearra izan ba'eben, lurralde ondo gozatsua aukeratu eben: Alde batean ezoagoa eta bestean legorragoa.

Auñamendiaren erpa bat da Kantauri mendi-katea eta onek erdibitzen dau gure lurraldea. Kolitza'n asi, Gorbeia'n jarraitu, Aitzgorri ta Aralar'en amaitu, bitartean Urkiola, Barazar eta beste gainbe asko dirala.

Mendikate orren alde bakoitxeko ura, errekatxuak eta ibaiak bide dirala, toki batera doa. Iparraldekoak, erreka txikiak, Kantauri itxasora eta egoaldekoak, Ibairu edo Ebro ibai ederra bide dala, Lur-Arte edo Mediterraneo itxasora.

Auñamendi'ren iparraldean be bizi dira gure senide diran euskaldunak eta euren lurraldean jausten dan ura Kantauri'ra doa.

Itxas-aldeko lurralde ezoan beti izan dira basoak ugari eta soloak urri. Alde legorrean, ostera, basoak urriagoak dira, soloak ugariagoak. Eta soloetan matsa ugari. Ardao ona irabazbide. Oriolandara batzuk be badira.

OTZ-BEROA TA EURIA

Gure eguratsa ez da ertzekoa, ez dau bero aundirik eta ez otz aundirik be.

Negutean mendi aundiak edurrez jazten dira, iñoz itxasoraiño be eltzen dira edurtzak, baiña ez da izaten beste munduko otzik.

Euskalerrri ezoan daukagun giroa, otza izan ez arren, ezoa dalako, geiago zomatzen dogu otz ori, alde legorrean ostera legorra dalako, otza aundiagoa izan arren, errezero artzen da.

Udea epela eta naikoa euritsua izaten da Kantaurialdean; Euskalerrri legorrean, ostera, euri gitxi eta bero geiago.

Euriaren arazoa aspaldion pozbide biurtu jaku. Orain-txe diardue gure Erdi-Ugartearen egoaldean euririk egiten ez daualako oso urduri, etxeetan edateko ta garbiketarako bear daben beste ur ez daukela, eta urritasun aundiagoa soloak ureztatzeko. Guk ostera, ain bearrezkoa dan isurki au ugari daukagu.

AURTENGO NEGUA

Aurtengo negua naikoa euritsua dogu, edurra be ez dabil urrin. Mendian 600 bat neurkin igon ezkeru aurkitu egiten dogu. Orregaitik otza be ba-daukagu, gabetan leia edo izotza be bai. Etxeetan bero-gailluak iziotuta euki bear ordu batzutan.

Gure aurretikoak otza eta beroa artzeko, gu baiño sendagoak ziran baiña oiturak egin dabe gu orretan bigunagoak izatea.

Dana dala, maiatz-inguruan asi udabarri gozoagaz eta Domu-Santuetara arte, sei edo zazpi illebeta giro gozatsuan bizi izango gara.

LURRALDE AUKERATUA

Gure asabak, iñondik ona etorriak ba'dira, beste batzuk euskaldunak bertan sortuak gerala diño, baiña lurralde au eurak aukeratua ba'da, aukeraketa ona egin ebela esan bear dogu: Ez daukagu lur-ikararik, ez itxas-ikararik; ez daukagu bero larregirik eta ez otz aundiegirik; lurra oso emongorra dogu eta itxasoa laguntzaille ona; leun-uneak lurra lantzeko eta mendi txikiak etxeak babesteko; bakean bizi izateko lurraldea dirudi, baiña, zori txarrez, bakea ez da izan beti artu izan dogun emaitza. Askotariko gudak eta gizarte-ikarak ikutu gaitue. Baiña non dago bakezko lurralderik?

Ama lurra izan bekigu beti euskaldunok pozbide.



ARGIUNEAK

GABON



—Ikatola-kumeek ez dakie Olentzero besterik kantetan, ala?
 —Bai, badakie gauza geiago.
 —Ez dau emoten. Ez dot entzun "Olentzero... botilla arduakin" besterik. Ez ETB berak be...
 —Olentzero'n arazoa naiko naaspillatua da eta argitasun apur bat bear dau.
 —Lengo kanta zaarrak aztuta dagoz.
 —Kantu zoragarriak daude gure artean, auxe bezelakoak:

Gabaren erdian / Jesus jaio da
 alaiki ta bizkor / goazen Belen'a.
 Illuna dago / ez da agiri izarrik
 baña nik ez det / argi bearrik.
 Zu nere argitzaille / Jesus maitea
 nun billa zu baiño / argi obea.

URTE ZAAR-URTE BARRI

—Ara zer kantaten eben Lekitto'n.
 Lekitto'n, Ondarroa'n, Bermio'n... Badakit zer kanta biar dozun.
 —Kantaixu, ba.
 Urte barri barri / txarri belarri
 daukonak ez daukonai / eman biko sarri.
 Intxaurtxu bi / iru kastaña...
 (eta ezer emoten ez ebenian)
 atsuak dauko / popan berakatzatza
 aguriak dauko / usker usaña.
 —Azken ori zantarra dok; Naparro aldian obeto esaten dabe?
 Ur goiena ur barrena
 Urte barri egun ona
 Etxe onetan sartu dedilla
 pakearekin osasuna

IRU ERREGE

Tarteka gure erriak ez dau izaten errespeto aundirik orrelako kantetan: Olentzero begi gorri, nun arrapatu dek arrai ori?
 —Ba Iru Erregeen kantak be ez dautse begirune aundirik erakusten onelako kanta onetan:
 Iru errege datoz / kale nagusitik
 tripa arduaz beteta / ezin egon zutik.
 Meltxorrek eltzen dio / Kasparri besotik
 ez muturrez aurrera / erortzea gaitik.
 — Orrelako abestiak zentzun bako sakristauren batek asmako abazan tabernaren batean.
 — Bai, badakixu zer esaten eben erderaz: Los dineros del sacristán / cantando vienen y cantando van.
 —Bañan, Iru Magoek Fedearen aitorle izan ziran eta Izarrari

sinistu... Tratu oberik merezi eben gugandik.

—Ori ez dok keskatzekoa; gure artean orren antzeko bertsolari adar jotzallerik ez dok sekulan paltau.

Jentillak ziran eta geu be bai; orregaitik edo, gaurko egunez gizon kristiñau euskaldunen eguna zan eta asko bezin asko aitor ta eta Jaunartzea egitera gaurko egunez urreratzen ziran.

—Ondo begiratu ezkeroz, Fedea eskatu bear Mago oieri...


—Sinismena, Itxaropena eta Maitasuna; iru direnez, bakoitzari bat...



ARRIMA, ARRIMA, PASKUALATXO

— Maitasuna eskatu bear dala diñozu?
 —Guk urrea eskatzen besterik ez dakigu; baña, urrearekin eta maitasun gabe, bikoteak ez du asko irautzen.
 —Eta, maitasunarekin bakarrik, zer? Contigo pan y cebolla?
 —Diru askorik gabe; baña maitasun beroakin, bizitza asko errezten da... Ez dozu sekulan Arrima, arrima Paskualatxo, entzun?
 —Ez.
 — Ekaitzak gogor jotzen eban gau illun batean, Praisku aberatsa (abere asko ebana) goizeko ordu txikietan jeiki eta mendira doa, sakabanatutako ardiak batzera.
 —Ori edonok egiten dau, artzaiña ba'da.
 — Aldameneko etxetxoan Potolo eta Paskualatxo bizi ziran, maitasun askoren jabe, baña, ardirik ez. Eta, Praisku mendira bidetan jarri danean, oge barruan, Potolo'k emazteari:
 "Arrima, arrima Paskualatxo,
 ezer ez dabenak, badau suerterik asko".
 —Ori egia izango da; baña, diruak lagundu egiten dau.
 — Dirua izan da ere, askotan egia gertatzen da olerki onetan esaten dana:

Lorea erne zan
 gorri panpoxa
 maitasunaren larrosa...
 Bion
 biotzetik
 genion
 ontzia presta...
 Ontzia gorritz
 odolez bero
 amesetz pil-pil...
 Negua eldu
 otzetan ixil...
 Orr-irtete gutxi
 pasata gero...
 Kontuz!
 Ez ikut
 larrosa gorria
 erdi-bi dago
 ontzia.



ALBISTEAK

OLENTZERO BEGI-GORRI

Aurtengo kantuetan ez dau jan eta edan besterik egiten:

Ofentzero begi-gorri
Nun arrapatu dek arrai ori...
Orra, orra, gure Ofentzero
pipa ortzian duefa eserita dago
kapoiak ere baitu arrautzatxuakin
biar meriendatzeko botiffa arduakin.

Besteak jarraitzen dau:

Ofentzero guria ezin degu ase
bakarrik jan dizkigu amar txerri gazte
saiaski ta sofomo makiña bat este...


– Sankristau batenak izango zirefa esan dozu.
– Bai, afa izango zirian; baña, abadeak be ez dira fo egin bada ez badako gauzak atarutzen. Iñoz be irakurri dozuz Koproyenak?
– Ez dakit zer diran be.

Bertoak dira. Guztiak era onetakoak:

Don Fefix Tronbon zan asto puxantak
eta ontzia apurtu dabelako neskame xarmantak
emon deutso iperdian afako ostiko gafanta.
Neskameak miñez eta tatarrez
sudurrak bete deutsoz puzkarrez.

Gitxien usten dauenak
berak artzen dau
merezitako erantzuna.

ILDA GERO / SALDA BERO



Gabon-afdi onetan, sekufako omenafdia egin deutso Oiar-tzun'go Udafak D. Manuef Lekuona'ri.

Bai, irakurri neban; gañera, aste osokoa.

– Euskafzaindia be an egon da.

– Artifferi aundia eraman dute; Haritschefhar lendakaritik asi eta José María Satrustegi'k jarraitu beste fagun piffo batekin.

Orreri esaten jako gure errian: Ifda gero / safda bero. Bizirik dagoanari goserik iltzen laga eta ondoren olfo-salda ederra emon nai...

– Bide txarretik afdendu eben Xenperrenak bere aurka, izenpetu gabeko paper euskafdunetan, esan da gero.

– Zer edo zer entzunda daukot: Paper a idatzi ebanak, ondo ekiela euskeraz.

Betirako mingoitzez beteta utzi eben danen artean...

– Orain, dana konpondu nai.

– Ifda gero, safda bero.

FEDERA AURRERA DOA

– Fedeko egiak aurrera egin dezake, afa?

Zergaitik, ez? Gizakia aurrera doa etenik gabe bere jakindurian.

– Ori edonork daki, geroz eta geiago argitzen dituefa mundu onetako egiak; baña, Fedearenak...?

– Bardin.

– Bai, baña...

– Gauza bat da Fedea argitzea eta beste bat, Fedea afdatzea.

– Ori diñot, ba, neuk.

– Aurra, amaren sa-beletik asita, ez da ez gizon ez emakume; baña, beregan ditu gizon-emakume izateko bear dituen aafmen osoak.

– Bai, ondo azten ba'da.

– Orixe, ondo azten ba'da, izakia afdatu gabe; bere nortasuna eta egiturak afdatu gabe. Iru anka edo fau esku ipintzen badeutsaguz, orduan afdatu egingo degu.

– Entendintzen dautzut: Gauza bat da Fedea argitzea eta beste bat Fedea afdatzea.

– Gari-afea ereintzen ba'degu, gariak urten bearko dau eta ez iraka edo fekittar-befarra.

– Fedea argitu, aurreragotu... baña, ez afdatu. Ori af da?

– Bai, orixen da.



MOCTEZUMA

Oporrak igarota, ikastaroa berriro asi dogu. Mexiko'ko istoria darabifgu ikasgai.

Hernán Cortés an agertu zanekoa?

– Eta, ango burrukak.

– Buruzagia Moctezuma zenekoa?

– Bai, Gerbaxio'ri gafdetu deutso irakasfeak ia nor zan mexikotarren buruzagi ori.

– Gerbaxio, larri jatzen danean, totef egiten dau...

– Neure istoriako programa eukan eskuetan eta neuk ferro artean "Moctezuma" idatzita neukon. Gerbaxio'k anka erabiften eben neu jotzeko, ia neuk argitasunik ematen neutson...

Eta, zur zer egin dozu?

– Neuk esan deutso irakurteko, fetzeko: Letuzak.

– Eta, Gerbaxio'k?

– Nor zan mexikotarren buruzagia, gafderari, gorri-gorri para eta onefa erantzun dau: Le... fe... fe.... fetuzak!

Bartofu Arropaingo



ESATE TA IBILTE-BIDE AZKARRAREN MUNDUA

AURKEZPENA

Gaurko gaia "Esate ta Ibilte-bide Azkarraren mundua" da, eta izlaria Zabala ta Etxebarria'tar Enrike.

Bakio'n jaiotako euskaltzale au, Begoñazpi'ko ikastolan dogu irakasle, Ludiztia edo geografia eta Edestia izanik, an emoten dauzan ikasgaiak.

Bizkaierearen maitale ta eragille andia dogu, eta au egiztatzeko ez dogu bestetik esan baiño, len Agur, eta gaur Zer aldizkarietan idazle dogula.

Esan bearik ez dago. Esate ta Ibilbide azkarraren mundua, gaurkotasun andikoa dala, gaurko mundua ain arin garatzen danean batez be.

Entzun dagiogun, beraz, bere esatekoa guztiz zudugarria izango dalakoan.

Zubiri'tar Iñaki

FREKUENTZIEN PLANGINTZA

9-20 KHz	RL / MI	1.800-1.810 KHz	Bilaketa (SOS)	174-223 MHz	IK (Telebista)
20 KHz	Ordu seinaleak	1.810-1.850 KHz	Irratizaleak	223-399 MHz	Estatuarentzat
20-90 KHz	F / MI / RL	1.850--30.000 KHz	Danatarik: IK, F, M Eguraldia, SOS, RL, Irratizaleak, Ordua	400 MHz	Ordu seinaleak satelitez
90-130 KHz	MI / RL	30-47 Hz	F / M	400-406 MHz	Eguraldia jakiteko
130-148 KHz	MI / F	47-68 MHz	IK (Telebista)	406-430 MHz	F / M
148-283 KHz	IK (Uin luzea)	68-87 MHz	F / M / RL (A)	430-440 MHz	Irratizaleak
283-415 KHz	RL	87-108 MHz	IK (F.M.)	440-470 MHz	F / M
415-495 KHz	RL / MI	108-138 MHz	MA / RL / Eguraldia	470-890 MHz	IK (Telebista) UHF
495-505 KHz	SOS	138-144 MHz	M	890-960 MHz	M / F
505-526 KHz	MI / RL	144-146 MHz	Irratizaleak	960-1215 MHz	RL (A)
526-1.606 KHz	IK (Tarteko uina)	146-150 MHz	F / M	1.215-1.300 MHz	SOS Satelitez
1.606-1.800 KHz	MI / F / ML	150-174 MHz	F / MI / ML	1.300-... MHz	Danatarik geiena satelitez: Irrati, Eguraldia, Telebista, Medikuntza, Erradarrak...

IK: Irrati komertziala
MI: Mugikorra (Itsasokoa)

ML: Mugikorra (Leorrekoa)
MA: Mugikorra (Airekoa)

M: Mugikorra (Edozein)
F: Finkatua

RL: Radio Laguntza
SOS: Laguntza frekuentziak

BERBALDIAREN DENPORA ARDATZA

URTE EDO SASOLA

GERTAKIZUNA

K.a. VIIIgarren mendea	Trirreme greziarrak
K.a. VIIgarren mendea	Idazkeraren agerpena
106	San Pedro de Alcantarako zubia amaitu
1.280	Marco Poloren bidaiak
1.440	Guttenberg-en irarkola
XV-XVIgarren mendeak	Berbizkunde edo Errenazimendua
XVIgarren mendea	Egurrezko bidea meategietan
1.765	Lurrin makinaren leen patentea
1.769	James Watt-en lurrin makina
1.769	Cugnot-en lurrin traktorea
1.783	Mongolfier-en puztokia
XVIIgarren mendea	Burdinbidea meategietan
1.803	Trevithick-en lurrin ibilgailua
1.819	Lurrin itsasontziak Atlantikoa zearkatu 25 egunetan
1.825	Stockton-Darlington trenbidea amaitu
1.826	Sam Brown-en makina: gas leerketa
1.830	Leen lokomotora elektrikoa
1.837	Morse-ren telegrafoa
1.838	Lurrin itsasontziak Atlantikoa zearkatu 14 egunetan
1.864-74	Marcus: gasolina makina
1.876	Bell-en urrutizkina
1.883	Leen burdinbide elektrikoa
1.887	Hertz-ek uin elektromagnetikoak aurkitu
1.896	Popof: Ari bako leen mezu telegrafikoa
1.896	Marconi-ren telegrafoa
1.897	12 millatako komunikazio telegrafikoa
1.899	Inglaterra-Europa komunikazio telegrafikoa
1.901	Amerika-Europa komunikazio telegrafikoa
1.903	Wright-tarren egaldia
1.905	Henry Ford: Errezkadako ekoizpena. T modeloa
1.906	Irratiaren balbulea
1.914	Egazkina izkilu biurtzen da
1.914	Aozko mezua irratiz (100 kilometro)
1.921	Titaniz-en ondoratzea
1.921	Ukabilketa edo boxeo irratisaioa zuzenean
1.922	Voltumo ontziaren suetea
1.924	Diesel-Elektriko lokomotora
1.927	Ford T modeloa amaitu (15 miloi egin ondoren)
1.930	Telebistazko leenengo emonaldiak
1.930-40	Egaldi komertzialak, aire-bidari garaiak
1.940	Erreakziozko motorea
1.949	Transistorearen asmakizuna
1.953	Eurovision sortu
1.967	Margoetako telebista European

BERBALDIAREN NONDIK NORAKOIA

- * Eskeintza
- * Aurkezpena
- * Garraioak:
 - Leorrekoak aintzina
 - Itsasokoak
 - Leorrekoak Industria Iraultzatik aurrera:
 - Bultzia
 - Berebila
 - Egazkinen mundua
- * Komunikazioa:
 - Zer dan
 - Komunikazioak eta urruntasuna:
 - Urbilekoak
 - Begibistakoak
 - Urrunekoak:
 - Idaztiak
 - Ariz: Telegrafoa eta Urrutizkina
 - Ari barik: Irratia eta bere garapena
 - Frekuentziak: Motak eta berezitasunak
 - Sateliteak
 - Irratigintza: Telegrafia, Teletipoa, AMTOR, Fax, Itza/doinua, Telebista
 - Ziurtasuna mezuetan
 - Arriskuak
- * Amaiera

FREKUENTZIAK

*** NEURRIAK**

Hertzio (Hz)	
Kilohertzio (KHz)	= 1.000 Hz
Megahertzio (MHz)	= 1.000 KHz
Gigahertzio (GHz)	= 1.000 MHz

*** SAILKAPENA**

3-30 KHz	VLF	Frekuentzia oso baxua
30-300 KHz	LF	Frekuentzia baxua, Uin luzea ("Onda larga")
0.3-3 MHz	MF	Tarteko frekuentzia, Tarteko uina ("Onda media")
3-30 MHz	HF	Frekuentzi garaia, Uin laburra ("Onda corta")
30-300 MHz	VHF	Frekuentzi oso garaia
300-3.000 MHz	UHF	Frekuentzi "ultra" garaia
3-30 GHz	SHF	Frekuentzi "super" garaia
30-300 GHz	EHF	Frekuentzi "extra" garaia

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko errea. Etixerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dau-tzuegu: Bialdu eiguezue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta di-rala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

B I Z K A I T A R R A I B I Z K A I E R A Z

Gabon guztioi:

Asteko, eskerrak emon bearrean aurkitzen naz. Eskerrak alde batetik zuoi entzule, esango dodazena entzuten etortzeagaitik. Eta eskerrak ere Euskerazaleak alkarteari, nitaz gogoratzeagaitik itzaldi au emoteko, izan ere niretzat oore aundia da euskeraren alde ainbeste lan egin dauan alkarteak nilako bat gogoan eukitea, bere ekintzetariko bat burutzeko orduan.

Beste alde batetik, liburuetan egiten dan moduan, nik ere eskeintza edo dedikatoria bat egin ez asi gura neuke itzaldi au. Alkarteak euki dauan partaidetariko bat gogoratu gura dot: Anton Landajuela. Ezagutu zenduenok ziur nago bere oroipen ona gordeko dozuena. Basarteko unibertsitatean lizenziatua eta gero bizitzaren unibertsitatean Master guztiak lortua. Jakituna? Euskeran goi-mailako jakituna? Ez naz orretan sartzen, baina euskerak bera moduko langile sutsuak eta aalegintsuak baleukaz beste oilar baten kukurrukua entzungo genduke gure kaleetan.

Aurrerago esan dodanez, arritu egin naz nilako bat aukuratzeaz itzaldi bat emoteko. Ez naz titulo aundiko inor; irakaslea, eskola maisua, besterik ez. Leenago errietan begirune aundia zor jakona, ia abadeari bestekoa. Gaur batak eta besteak, antza danetik, ez dabe olakorik merezi. Beste alde batetik zaletasun askotakoa ere banaz, baina alako gauzetan sarritan gertatzen danez, askotan zaletua, ezertan ez aditua. Eta azkenik idazlea. Baina idazlea bere oinarritzko esangurean: idazten dauana, zerbait idatziz komunikatzen dauana. Eta ortxe dago itzaldi onen mamia, komunikatzea, arremonetan jartzea, zerbait esatea, orixe da gizonak daukan bearrizenerariko bat eta. Nire Zer-eko ileroko idaztitxoak (ez naz ausartzen inola ere artikuloak direnik esaten) zerregin orixe bese nai dabe, zerbait esatea, adieraztea, bere akats eta kausirtze edo azertuekin (euki baleukaz). Ez naz ba idaztetik bizi dan inor.

Itzaldiaren aria artuz, oinarritik asiko nintzateke, eta nire ustez oinarria onetan datza: Gizona ez da, jatorriz, ez abere ez pizti bakartia, beraz komunikatu bearra dauka bakartasuna apurtzeko.

IBILTE ARIÑA

Ibiltze azkarren arloari jagokon aldetik, gizona, nekazaritza eta abelazkuntza sortu bitartean, ibiltaria zan, janari bearrizena bultzatzen ebalarik batetik bestera ibiltzen. Ala eta guztiz ere, nekazal erriak lantzen eben lurrari itsatsita, geldikorrek biurtu ondoren, abelazkuntza bizimodutzat eukien erriak oraindik ibiltariak izan bear, oraingo onetan ebereentzat elikaduraren bila. Geroago, XV-XVIgarren mendeetatik aurrera, gizonaren bidai eta aurkikuntza aundiak, ibilaldi luzeak, asiko dira; beti kontutan izanik ibilaldion arrazoibiderik aundiena aberaztasun gosea zala. Ez da arrazoi bakarra izango, or izango dira erlijio, zientzia, e.a., baina beti neurri txikiago baten.

Bere joan-etorri guztietarako, gizonak arazo biren urtebidea bilatzen dau: erreztasuna eta azkartasuna. Eta arazo bi orrei erantzuteko bide luzea egingo dau garraioetan: bere oinetatik asi eta gaur eguneko garraiorik aurreratuenetaraino.

Esan dodanez, bere anketaz baliatuko da asieran, beste edozein piztiren antzera. Baina laster, piztiak etxekotzen asten danean, eurak erabiliz, naiz zama edo pisua eroateko,

naiz euren gainean arinago ibilteko erreztasuna eta azkartasunarentzat leenago erantzunak bilatuko dauz.

Zibilizazioak aurrera joan, eta gurpilaren erabilera zabaldu aala, gurdira elduko gara. Urrats onen ondorioak garraioan bertan baino, beronentzat bearrezkoa izango dan azpiegituran ikusiko doguz. Gizonak zein abereak ez dauka oztopo aundirik batetik bestera joateko, baina ez da gurdiagaz bardin gertatzen: Bideak bear dauz. Alaxe aurkituko doguz leenago zibilizazioetako bideak, pasabideak edo estratak.

Guretzat urbilago, eurak itzitako aztarnak ikusi eta ainbat kasutan erabili ere egin geinkezalako, erromatarren kasua dago. Oneek egindako kaltzadak bere sasoirako benetako autopistatzat artu geinkez (miliario edo mugarriak, atsedan lekuak konpoketa lanak e.a. eukiezan). Eta zer esan zubietaz? Gaur egun zutunik ez ezik trafiko aundia eta astuna jasaten daben ainbat zubi erromatar dagoz. Ez gure inguruetan, ez zan Euskal Erria erromatarrentzat lekurik gutiziatuena eta, baina or dagoz Meridako kasua edo San Pedro de Alcantarakoa. Benetan injenieritza aundiko aailmntzatzat anu bearko doguz, kontutan badaukagu gurdien pisua eusteko eginak izanik zenbat toneladatakako kamioiak igarotzen diran gaur egun bere gainetik, egin osteko ia ogei mende geroago.

Erromatarren garaitik Industria Iraultzaraino leorreko garraioak ez dau, funtsean, aldaketa aundirik ezagutuko.

Eta zer gertatzen da sasoi ori eldu artean uretako garraioekaz? Aintzinako gizonak urak zearkatzeko eta ur gainean mantentzeko erak ezagutuko dauz. Are geiago, uraren indarrak konturatuko da, eta indar ori ezin izango dauan menperatu arren, berataz baliatzen ikasiko dau (errotak olak...). Gainera indar orixe, leorrez joanda baino oztopo gitxiagoz garraiotzeko ibilbidea izan leitekela ikustean, ur gaineko garraioari ekingo deutso.

Ontziak ez dauka arazorik korrontearen alde joateko, baina zelan egin bere kontra joateko? Au da, bultzatze edo propulsio arazoa agertzen da, eta ez ori bakarrik ontzia zuzentzearena ere bai. Bultzatzea arraunen bidez lortuko dau eta gidatzea lemaren bitartez, au, asieran atzeko aldean jartzen dan arraun luze bat besterik ez dalarik, gure trainerak erabiltzen daben modura. Geroago Naturaren indarrei onura ataraz, aizeari batez ere, belaontziak agertuko dira.

Biak batera erabiliko dira mende askotan: Batzutan aizeoialak eta aizeak indarrik ez daukanean arraunak. Arraunlariak geienetan esklabuak edo "galeretara" zigortutakoak izaten ziran. Onela zeozelan bultzatze arazoa konpontzen dan arren, oraindino asko falta da ontzia gura dan lekura gidariaren gogoz eroateko. Beste alde batetik ez dagoz prestatuta itsasoaren indarrari aurre egiteko eta ekaitz txikienaz ere ondoratzeiko arrisku bizia dauke. Bearbada orrexegaitik aintzinako gizonak ulertzen ez ebazan indar misteriotsuekag egiten ebanez, itsasoa bera ere jaungoikotu egin eban eguzki, ilargi, tximista, aize era abar luze bategaz egin eban modura. Or adibidez greziarren Poseidon eta erromatarren Neptuno. Arazook direla eta Antzinako aroan eta Erdi Aroan egingo dan itsasketarik geiena kostaldekoa izango da: itsasgizonak ez dira ausartzen lurra bistaz galtzera.

Berbizkunde sasoiagaz batera ibilaldi luzeen aldia jatorriku. Marco Poloren antzerako joanetorriak eta batez ere alako bidai batetik ekarri daitekezan aberaztasunez diru arazoak bizitza guztirako konpondu leitekizan asmoak gizona ibilaldi luze orreetara bultzatzen dau. Beste era batera esanda,

aberzatasun gosea izango da ibiltarien arrazoibidea. Baina leenago itsasoan zear ibiltzeko itsasontzien arazo tekniko asko gaintu bearko dauz. Gidatze eta zuzentze arazorako lema finkoa asmatuko dau. Bultzatze arazoa aize-oial latinoia laukiagaz batera erabiliz aizearen indarrari edonondik jo arren onura atarako deutso. Bearbada arazorik aundiena lekutzearena izango da, itsasoan ez dago erreferentziarik lekua kokatzeko eta. Astrolabioa, kamala, kuadrantea e.a. erabiliko dauz gauaz zein egunez latitudea, au da Ekuatoerenganako distantzia jakiteko. Oraindik urrun geratzen da luzeera jakitea, au da zein meridianotan dagoan jakitea, batez ere kontutan izaten badogu Lurra borobila dala esatea sasoi orretan eleizaren aurka joatea dala. Ze urrun geratzen dira gaur eguneko DECCA, DECTRA, LORAN edo GPS kokatze sistemetik.

Aldaketa txikiak salbu, obekuntzak oso astiro agertuko dira itsasgintzan urregoko pare bat mendeetan.

Industria Iraultzak eta batez ere bere oinarria izan zan lurrin makina ibilgailuetan erabiltzeak ekarriko dau garraioen obekuntza eta gaur egun arte mantentzen dan arintasuna-leia edo konpetentzia.

Edozein garraioak zein leorrekoak zein itsasokoak zein airekoak daukan arazoa bultzatzea da. XVIII garren mendearen erdialdera ez da oraindik aurkitu mogimendu iraunkorra sortzen duan makinarik. Dilijentzietako zaldiak zein itsasotako aizeak indar barik geratzen dira, beraz zelan lortu garraioa eten barik mugi araztea? Inglaterrako lantegietan erabiltzen asten dan lurrin makinatik etorriko da erantzuna: Azken batean ikatza eta ura, ez dau besterik bear egunean ogeitalau ordutan martxan egon daiten. 1.765 garren urtean egiten da lurrin makinaren leen patentea eta 1.769 garrenean James Watt-ek guztiz egintzat emoten dau.

Bereala sartuko da itsasontzietan: Aizerik ez dagonerako, ontziaren alde bietara jarritako paletadun gurpil aundi bi lurrin makinaz mugiarazteko. Era orretako Savannah itsasontziak 1.819-an 25 egun bear izan ebazan Atlantikoa zearkatzeko. 1.838-rako bidaia amalau egunetan egitea lortu zan. Baina gurpil onek ekaitzetan naiko errez apurtzen direnez, urtenbidea elizetik etorriko da. Asieran indar bietaz baliatuko diran arren, aizeaz eta bere ezean, makinaz, azkenean makinaren nagusitasunaz oartuta, berau baino ez da erabiliko, aize-oialezko itsasgintza kirol eta solas aldiatarako baino ez dalarik geratu.

Dana dala onen guzti onen azpian arrazoi ekonomikoak aurkitzen da. Garraioen obekuntza industriaren obekuntzari lotuta doa: Zein leengaiak urrundik ekarri bear direla, zein landutako ekoizpenak urruneko merkatuetara eroan bear direla, azkartasuna bearrezkoa da. Eraberritze onen aurretik edozein ekoizpenaren salneurria distantzia laburrean ere bikoiztu egiten zan garraio geldo eta mantsoen erruz.

Orditik gaur arte, itsasgintzak ainbat aldaketa ezagutu dauz, zein untzien itxuran, zein kokapenak jakiteko erabiltzen dan tekniketean. Makinarian bertan ere bai. Aspaldiotako ontziak diesel motorren indarrez mugitzen dira, eta badagoz energi nuklearra darabilenak ae, batez ere egazkinak daroezan guda ontzi nagusiak. Itxurari dagokionez, motorra gaur egun atzeko aldean jartzen da, eta ez mende onen erdialdean egiten zan moduan, untziaren erdikaldean. Beste alde batetik kokapenak jakiteko sistema desberdinak dagoz: LORAN, DECCA, DECTRA (irratiaz baliatuz, radiofaroak) edo GPS (satelitez). Baina bakartasunetik atarako dauana irratia izan-

go da, berau dalarik radarregaz batera marinelek ia geien eskertzen daben aurrerapena.

Dana dala, alperrik izango zan Industri Iraultzako aurrepen guztia, itsasoan egindako obekuntza orrek ez baleu leorean erantzun bat izan. Bideak konponduaz aparte, zerbait geiago egin bear zan. Emen ere lurrin makinaren eskutik etorriko da urtenbidea. Meategietatik meatza ataratzeko XVIgarren mendetik erabiltzen zan teknika izango da oinarria: Gurpil arruntadun gurditxoa erabiltzeko meategietako lur gaina irregularra zanez, norbaiti asmatu jakon egur biz bide bat egitea eta bere gainean gurditxoa jartzea, bidetik ez urtetzeko beronen gurpilak egurren itxurari moldatuz. Geroago XVIIIgarren mendetik aurrera, bai gurpilak eta bai bideak burdinezkoak egiten ziran, iraunkorrakoak zirelako. Beraz badaukagu burdinbidea. Eredu orreri jarraituz gurdien bultzatzailea baino ez jaku falta bultzira eltzeko.

1.803garren urtean Inglaterran, Trevithick-ek, lurrin makinaz mogitzen dan ibilgailua sortzen dau. Ibilgailu au burdinbidearen gainean jarriaz batera badaukagu bultzia, baina asmatzailea ez izan arren Stephenson izango da meritoa eroango dauna. Trevithick txirotasun gorrian il zan, bere asmakizunen ideak garatzeko dirurik ez ebalako izan. Dana dala ideia ortxe geratu zanez Stephenson-ek lokomotoraren ideia garatu eta geroaren ikuspegi luze batez trenbodearen sarearen ideia ere garatu eban. Orrelabere ardurapean 1.825garren urtean Stockton-Darlington trenbidea zabalduko da, leen erri-bultzia, ordura artekoak meategietakoak zirelako, euren meatza itsas kaietaraino eroateko erabiltzen ebezararik. Bultzia izango da Industri Iraultzaren bultzatzaile eta oinarrietariko bat, nazioen aurrerapena urte askotan eukazan burdinbide kilometrotan neurtzen zalarik.

1.830garren urtean leen lokomotora elektrikoak egin ziran, baina 1.880garrenean arte batera aundi eta astunegien bitartez mugitzen ziren. 1.883garrenean leenengo benetako burdinbide elektrikoak agertuko da, lokomotorak burdinbidean egoan irugarren errail batetik artzen ebalarik argi-indarra edo elektrizitatea. Ostera 1.924-n Diesel-Elektriko leenbiziko lokomotorak agertzen dira. Gaur eguneko diesel deitura dabenak era orretakoak dira. Diesel makina ez da erabiltzen bultzia mugiarazteko, elektrizitatea sortzeko baino eta onen bitartez mugitiko da lokomotora.

Aspaldion, oizko burdinbideetatik aparte, beste erantzun batzuk ere aurkitzen saiatu dira asmatzaileak, bultziaren abiadura orduko 200 kilometrotara eltzen danean arazo teknikoak sortzen direlako. Lebitazio magnetikoa erabiliaz bultziak orduko 480 kilometrotako abidaura artu leikie eta oizko erara ere 300-era ere eltzen dira, or AVE adibidez, naiz eta era onetako bultziak igaketa edo desgaste aundia jasaten dabenez, bere zatiki batzuk sarritan aldatu bearrean aurkituz.

Baina ezin dot alde batera itzi leorreko beste garraio mota bat ere: berebila edo autoa. Lurrin makina bultziari jarri orduko oizko bideetatik ibili daiteken garraioa asmatuko da. 1.769an Cugnot frantziarrak lurrunezko leen traktorea egiten dau eta Trevithick-ek Inglaterran ere lurrunezko leenengo ibilgailuak egiten ditu bultzien munduan sartu aurretik. Baina azkenengo onek ordurarteko zamaketa lineen jabeak egiten eben indarragaitik lege oztopoak euki ebazan, makina berri orregaz arriskuan ikusten eben euren negozioa eta.

Dana dala, 1.840-rako, guztiz desagertuta egozan lurrunezko ibilgailuak. Lege arazoak aparte arrazoa beste onetan bilatu bear da: 1.826-an Sam Brown-ek gas leerketaren

bidez mogimendua sortzen eban makina asmatu eban, eta orretan oinarriturik Nicolaus Otto alemaniarrek gas motoreak egiteko fabrika bat zabaldu eban. 1.864 eta 1.874 bitartean Marcus austriarrak gasolina erregaitzat erabilzan motoreak asmatzen ditu eta onekaz badaukagu gaur eguneko berebilen asiera finkatuta. Beraz, aldaketak izango diran arren, azpiegitura, material, ziurtasun eta erosotasun aldetik gaurko berebilak antzerako bultzatzaileak darabitez. Mende asieran berebela erostea aberatsen esku baino ez egoan, baina Henry Ford-ek errezkadako ekoizpena edo "produccion en cadena" deiturikoa asi eban 1.905-n zatiki trukagarriez autoak osotuz. Gizon bakoitzak zatiki bat jalliz, autoak arinago eta geiago egiten dira, ekoizpen gastuak jeitsiz eta eurekin batera autoen salneurriak ere. 1.905-tik 1.927-ra Ford T modeloko 15 miloi berebil kaleratu ebazan. Leenengo munduko gerratearen ostean ikaragarri aunditu zan berebil kopurua, eta zabalkunde onek krisialdiak aparte, ez dau ezagutu etenik gaur arte.

Berebilaren garrantzia, gaur egun ukatu ezinezkoa da. Era guztietako berebilak era guztietako lanetarako zein solas aldiatetako, gure bearrizanak ia asetuta daukaguz. Gauza merkea ez izan arren ia geienon poltsikoen eskura dago. Makina guztiak bezela, naiz eta laguntza aundia emoten dauan, arazo sortzaile eta nerbioak galtzeko bidea ere bada askotan.

Badirudi egazkinen munduaz aaztu egin nazala. Egazkingintza garraioen artean anai txikia da, baina sendietan gertatzen danetz, txikiena izaten da azkarrena eta zurrena. Airetik mugitzea, egaz egitea, egaztien antzera, libre edonora joatea, lurraren gainean agertu danetik gizonak euki dauan betetu ezinezko ametsa izan dau. Mongolfier anaiak 1.783 bere puztukiaz oinak lurretik altzatzea lortu ebenetik leenengo egaldi pilotatua eginez, gaur eguneko egazkinetara, bidai neketsua izan bada ere, azkarra eta arina ere izan da. Mongolfiertarrak ametsaren leenengo zatia lortuko dabe: Airean eutsi edo mantentzea. Wriyth anaiak emongo dabe 1.903garren urtean urrengoko pausoa: airean mugitzea, egaz egitea, 260 metrotako motorrezko egaldi gidatua eginez. Mende bakar baten egazkinen munduak ezagutu dauan aldaketa itzela izan da. Metro batzuetako egaldiak egitetik milaka kilometrokoak egitera pasatu gara, barre egiteko moduko abiaduretatik otsaren abiadura irukoiztera. Eta ori guzti ori espazio bidaiak kontutan izan barik.

1.909-tik 1.914-ra egazkinak ia kiroletarako baino ez ziran erabiltzen. Leenengo munduko gerratea asi zanean, asieran ikustaldietarako erabiltzen ziran baina laister izkilu modura erabiliko dira, zeruko gatazkari asiera emonez. Zergaitik ete da gizonok ainbat denpora eta diru emoten dogula beste gizonak ilteko eta menperatzeko sistemak asmatzen? Orrexek eragin ebazan egazkinetan obekuntza asko, izkilu moduan obetu bearrak: azkarragoak eta gidagarriagoak egin bear ziran.

1.930-ko amarkadan, leen munduko gerratetik ataratako jakituriaz, makinak obetu eta jendea garraiotzeko ainbat linea sortu ziran. Bigarren gerratean egazkina, kasu askotan, izkilu erabakikorra biurtu zan obekuntza asko ezagutu ebaularik: Ordo-biko egazkinak edo "biplanoak" dasagertu eta ordo-batekoak egin ziran eta motor barriak erantsi jakozan abiadura irabazteko. Wriyth anaiak asi zirenetik iru gauza elburutzat artuta motore obeen bilaketa etengabea izango da: aalik eta txikienak iraunkorrenak eta azkarrenak egitea.

Bigarren munduko gerratea amaitu orduko erreakziozko motoreak agertuko dira bilaketa orren ondorioz. Onen oinarria, zelan ez, izkilu baten aurkitu bear dogu: Alemaniarrek Ingalterrara bialtzen ebezan V-2 leergailuetan. Ordutik gaur arte, onexek dira erabilenak.

Erreakziozko motorez itzelezko abiadurak lortu daitezke, aurrerago esan dodanez otsaren abiadura irukoiztera eltzen diralarik. Kontutan izan otsaren abiadura orduko 1.225 kilometrotakoa dala. Abiadura au lortzeko eta beronek aizearen mukertasun edo erresistentziaren aldetik dakarrezan arazoak gainditzeko, egazkinen itxura aldatuz joan da, geroago eta geiago, gezi puntaren itxura artu dabelarik batez ere abiadura aundikoak. Are geiago, abiadura desberdinei moldatzeko, batzuk abiaduraren arabera itxura aldatzen dabe, egoak aurrera eta atxera mugituz. Militar munduan sartu ezker, beste baldintza bat ere badagonez, radarrez ez beste sistemez ikustatua ez izatea ain zuzen, diru asko sartu da itxura egokia bilatzen, batez ere egazkin zelatarientzat.

Gidatze, zuzenketa eta kokapenari dagokionez, oso garrantzitsuak dira gauza bi, bai itsasozko zein airezko garraioetan: Lekutze sistemak eta lemazain automatikoak. Leenengoei buruz, itsasoan aintzinakoenak itsas-argiak izan dira, naiz eta gaur egun ez orrenbesteko garrantzia euki. Irratiaren egerpen eta zabalkundeagaz, itsas-argien antzerako teknikak erabiliz DECCA asmatu zan, baina onek 160 kilometrotako bitartekoa baino ez dabenez artzen, DECTRA, agertu zan, eremua 1.600 kilometrotara zabalduz. LORAN-ek 128 kilometrotako eremua artu arren, beste konturik atara barik eta nabegazio mapak erabili barik emaitzak telebista pantaila baten agertzen diranez oso erabilia da. Dana dala sistemarik erabilena, bai itsasoan, zein airean eta aspaldion leorren ere (adibidez basamortuan egiten diran kirol probetan, Paris-Dakar-en antzerako lasterketetan) GPS da. Global Position System munduan edozein lekutan kokatzeko sistema da. Satellite geldikor batzuk bialdutako seinaleaz baliatzen da eta bereala makinatxoaren pantaila baten agertzen da luzeera eta latitudea, metro oso gitxi batzuren errakuntzaz kokapena emonaz. Aparato onen tamainua ia tabako pakete baten tamainuraino txikitu danetz eta salneurria ere asko jaitsi danetz, ziurtasuna aire zein itsas ontzien eskura dago.

Lemazain automatikoak ere orrexetan oinarritzen dira zuzenbide egokia mantentzeko, bai egazkinetan bai itsasontzietan. Naikoa da elmuga emotea bera arduratu daiten beste guztiaz, aizearen, ekaitzen, e.a.-n erruz egon daiteken edozein aldaketa berez zuzenduz. Egazkinetan eginkizun arrisksuenak ere bere gain artzen dauz, adibidez lurreratzea. Orretarako ez dira erabiltzen sateliteen seinaleak lurretik bialtzen direnak baino. Olan egoera txarretan ere (gabaz, lainoz, euriz...) lurreratzearen arriskua asko murriztuten da. Atako sistemarik ez dagoen pistetan eta, beraz, lemazain automatikoa ezin danean ereabili, margo desberdinetako argiz eta marraz batiatzen dira gidariak lurreratzeke. Baina ikusgarritasuna murrizten danetz batera kaia sarratu eta egaldiak desbideratu egiten dira beste kai batzuetara.

Orain artekotik atara daikegun ondorioetariko bat zera da: Garraioak ainbeste izanik eta orrenbesteko abiadura lortu daikeela kontutan izanik distantziak kilometroka baino, obeto neurtu geinkez orduka. Beste era batera esanda, Bilbotik Bartzelonara 650 kilometro egon arren, benetan dagoen distantzia berebitez bost ordutakoa da eta egazkinez bat beste-koa baino ez.

ESATE ARINA

Berbaldiaren beste gaia artuz, leenengo eta bein komunikazioa zer dan zeaztu bearke genduke. Nire ustez pertsona biren artean mezu bat dagonean, batak bialdu eta besteak artzen dauanean komunikazio bat dago. Itzaldiaren asieran esan dodanez, gizona ez da pizti bakartia, beraz bakartasunetik alde egiteko, laguntza eskatzeko beste batzuekin komunikatu bearra dauka.

Pertsonen arteko komunikazio motak euren artean dagoan distantziagaitik baldintzatuta dagoz. Orregaitik mezu motak azkar komunikatu eta distantziak gaintu bearrik sortaraziko ditu komunikazio eta komunikabide desberdinak.

Kasurik errezenetik asteko, aurrez aurre dagozan pertsonetatik asiko naz. Izkuntza mota bi erabili leikiez: aozkoa edo/eta keinuzkoa. Aozkoari garrantzi aundia emoten deusegun arren, keinuarenak ez dauka gitxiago. Ez nabil gorrak direnei buruz, geuk iztunok darabilguzan keinuetaz baino. Une baten pentsatzea baino ez daukagu, kontuan jausteko zenbat keinu egiten doguzan eguneroko ekintza, asmo, pentsamendu, sentimendu edo ideiak adierazteko.

Bigarren maila batera joan ezker, urruntasuna aundituz, baina begibistaren distantzian mantenduz, aozko komunikazioak garrantzia galtzen dau, baina beste bide batzuk jorratzen dira: Zaratak eta ikurrak. Zaraten arten, Kanarietako txistularien moduko kasu bitxiak aparte (mezu oso bat biartzen dabe txistuka), gizonak tresnak erabiltzen ditu. Onen artean ainbat lekutako tamtam: oinarriz makil batez ool edo enbor bat jotea. Ez dogu Afrika edo urrunago joan bearrik atakorik ikusteko, bertone ere badaukagu gure tam-tam-a: txalapartea. Gaur doinu tresna biurtua, baina badirudi jatorriz komunikabide zala. Emen bertone jarraituz ere adarrez egiten ziran deialdiak ezin doguz aaztu ere. Zarata artean ere sartu geinke lainotarako itsas-argien turruna, gaur, bere argiaren antzera, ez ain garrantzitsua, baina oraindino laino egunetan kostaldean entzun daikeguna.

Ikurren artean, ikurrina (margo bakoitzak esanai bat dauka, adibidez ontzi batek ikurrin gorri bat azaltzen badau zama arriskugarria daroala esan gura dau, edo baltza bada laguntza bear dauata). Beste batzuetan ikurrin ilerak erabiltzen dira, bakoitzak izki bat adierazten dauatarik (Adibidez oria erdian borobil baltzagaz "I" izkia da, zuria erdian lauki urdinagaz "S" izkia eta, oster, gurutze urdina badauka "X" izkia). Edo gizonak eskuetan artuz, gorputzaren zein aldetan eta zelan jartzen dauanarean arabera izkiak adierazoz. Azkenengo iru oneek oso erabiliak izan dira itsasoan. Argia ere erabiltzen da, linterna bat biztu eta amatatuz, MORSE kodeaz batituz. Bitxikeri bezela ere komentatu geinkez mendi tontorretako suak edo kee seinaleak edo izpiluaz egindako seinaleak.

Baina zer egin entzumena eta ikusmena labur geratzen diranean distantzia luzeegia datako? Zelan egin emoleak bere agindua artzaileari eldu arazteko? Berrito ere ikurrak erabili bearke dira, baina oraingoan esate eta artzailearen artean bitartekari bat bearke da: mezularia. Onak mezuak laburak diranean, ez dauka arazorik entzundakoa gogoratzeke eta aoz errepikatzeke, baina zer egin mezu luzeen kasuetan? Ikurrak erabiliz, margo desberdinetako zintak alkartuz, Ego Amerikako indioak mezuak osotzen ebezan, eta egipziarrek oster, irudien bitartez osotzen ebezan. Baina arazoaren benetako urtenbidea izkietatik etorri da. Izkien bidez itzak sortu eta onen bitartez esaldiak. Era onetara neurri aun-

di baten mezua osotasun guztian elmugara eltzea ziurtatzen da. K.a. VIIIgarren menderako izkuntza idatziaren aurrean gagoz. Ziurtasunaz gain, onegaz mezuaren iraunkortasuna ere lortu daikegu. Urrengoko pausoa mezua zabaltzea izango da. Asiera baten idaztiak banan-banan eskuz errepikatuko dira, 1.440 urtearen inguruan Guttenberg-ek irarkola asmatu arte, egia esateko, obetu arte, txinatarren asmakizuna da eta. Ordutik gaur egunera, irarkolak, mezua ugaritu eta zabaltzeko emoten dauan erreztasuna eta beronen erabilpena oso zabala izan daitekela kontutan artuta, interes asko sortaraziko dauz. Inork ez dau ukatzen idatzizko komunikabideen garrantzia, naiz eta irrati eta telebistaren aurrean arazo bat euki, azkartasunarena.

Azkartasun eta urruntasunaren arazoei erantzuteko, aukera bi daukagu: arien bitartez eginiko komunikazioak eta ari barik eginikoak. Aurrenekoen artean telegrafoa eta urrutizkina dagoz. Morsek 1.837-n telegrafoa asmatuz emongo deuto asiera komunikabide oneri, gaur egun arte aldateta aundirik ez daualarik ezagutu. Otsak eta ixiluneak tartekatuz, kode bat osotuz, itzak eta esaldiak sortarazten ditu, baina Bell jaunak 1.876 urtean asmatutako urrutizkinez pertsona bik euren artean berba egin leikie, alkarren aurrean balegoz bezela. Gaur egun ez berba bakarrik argazkiak eta idaztiak ere bialtzen dira urrutizkinez. Dana dala aria euskaria izatean tresna onen erabilgarritasuna mugatuta geratzen da, beraz, irratiari eldu bear distantziaren arazoa konpontzeko, gaurko urrutizkin mogikorrek gertatzen dan moduan.

Hertz jaunak 1.887-an bere izena daroen uin elektromagnetikoak aurkitu ebezan eta onen bitartez 1.896-an Popof-ek leen mezu radiotelegrafiko bialtzea lortuko dau, 250 metro-tako distantzia egongo dalarik emole eta artzailearen artean. Orrela emongo jako asiera ari bako radiotelegrafiari. Dana dala oorea Marconik eroango dau, urte berean ari bako telegrafia sistema bat patentatzen dauanean. Urte bete berandugo 12 millatara aldentuta egozan guda-ontzi biren arteko komunikazioa lortuko da. Komunikazio telegrafiko, 1.899-an Mancha ubidea zeartatuko da eta 1.901-an Atlantiko ozeanoa. Bere balioarritasuna 1.921-an Titanic-en ondamentian eta urte bete berandugo Volturmo italiar ontziaren suetean (521 opertsona salbatuak, inguruan egozan ontziak laguntza deia jaso ebelako) baieztatuko da. Irratia daukagu aurrean, orduan zein gaur, komunikabiderik azkarrena. Emoleak mezua bialdu bezain laster eltzen da artzailearen-gana. Asierako komunikazioak telegrafikoak ziran, au da, otsak eta ixiluneak tartekatuz, MORSE kodea erabiliz. Laster zabalduko dira doinua eta itzak uinetatik.

Irratiak teknika aldetik benetako iraultza izan diren aurre-rapen bi euki ditu: 1.906-an balbulea edo lanparea, udarea edo bonbillaren antzekoa, eta 1.949-an transistorea. Balbulez eginiko irrata geienok ezagutu dogu, gure etxetan egon dan leenengo irrata izan dalako, biztu eta gero denporalditxo bat bear ebana jotene asteko, berotu bearra eukan. Izan ere balbula orrei esker lortu zan irrati-gintza telegrafia baino zeozer geiago izatea. Zaratak eta ixiluneak aotsari eta doinuari emon eutsen bidea. 1.914-an frantziar batzuk aozko mezu bat artzea lortu eben, emolea 100 kilometrotara egoalarik. Baina leen munduko gerratea galgea izan zan irrati-gintzarako, bigarrena telebistarako izango dan moduan. Dana dala ogeigarren amarkadan jabego pribatuzko ainbat irrati agertzen dira ia Amerika eta Europa guztian zabalduz. Irratigintza komertzialaren zabalkundea ikaragarria izango da.

EUSKAL ASTEA

1.920-n leenengoz berri politiko bat emoten da Amerikan eta urrengoko urtean ukabilketa bat zuzen zuzenean. Irratiak arintasunaren leia irabazten deutso egunkariari. Irratirik geienak pribatuak ziran, baina ideiak zabaltzeko bere garrantzia eta balioagarritasuna baieztatu ondoren, nazioetako estatuak bereala asiko dira irrati nazionalak egiten.

Irratien multzoa ain aundia izanik 1.935-rako uinetan leku arazoa agertzen da, beraz uinen erabilera mundu mailan legezatu bearra agertzen da, nazioen artean itunak izenpe-tuz. Orduan gertatzen zana zera zan: eremu txiki batean irra-ti asko sartu bear. Gaur eremua asko eta asko zabaldu dan arren, arazo bardinaren aurrean gagoz.

1.948-n elduko da benetako leerketa, transistorearen asmakizunagaz batera. Irratiei euri ere alaxe deituko jake. Ortik aurrera zabalkundea itzelezkoa izango da, transistoren bidez mugikorra biurtuko dalako: txikia da eta pila bitar-tez dabil.

Irrati urte askotan ukatu ezineko komunikabideen erre-gea izan da, eta askorentzat oraindino ere bada, naiz eta tele-bistarengan etsai aundia aurkitu dauan jendea erakartzeko orduan.

Baina irrati komertzialaz aparte beste irratigintza batzuk ere aitatu bear dodaz: Serbitzuena, zaletuena eta ikerketena esate baterako.

Leenengoaren barruan danatarikoa daukagu: Eguraldi mapak, barriak (berri emole ajentziak), premiazko eta larrialdietarako serbitzuak (ertzaintza, suiltzaileak gaiso-garraioa...), nabegazio serbitzuak (naiz itsasorako zein aire-rako), ordutegi seinaleak eta beste mila serbitzu, ia enpresak beste (taxiak elektrizitate enpresak mezulariak zamariak...).

Zaletuen irratigintza gaur egun bigarren maila baten badago ere, urte askotan aurreratuena izan da, ikerketa mai-lan lan aundia eginez obekuntza askoren sortzaile izan dala-ko, batez ere munduko leenengo gerratearen sasoi inguruan. Sarritan, gezurra iruditu arren, ikerketa militarri aurrea artuz. Ez daigun aaztu teknologirik geiena elburu militarrek lortzeko egindako ikerketatik datorrela. Zaletuak izan ziran frekuentzi garaien balioagarritasuna eta erosotasuna baieztatu ebenak baita satelitez leenengo komunikazioa lortu ebenak daukagun berezko satelitea erabiliz, ilargia ain zuzen.

Ikerketari dagokionez, medikuntzan frekuentzia oso garaiak erabiltzen dira gaisotasunak aurkitzeko zein senda-tzeko. Laborategietan ere material batzuren balioagarritasuna frogatzeko ere erabiltzen dira frekuentziok.

Frekuentziei buruz zeaztasun batzuk:

1.— Frekuentzia neurria hertzioa da. Neurri txikiegia danez, beste oneek erabiltzen dira: Kiloherztioa (KHz), mila hertzio balio dauana, Megahertzioa (MHz), 1.000 kilohertzio, eta Gigahertzioa (GHz), mila megahertzio-ta-koa.

2.- Onda eta frakuentzia kontrakoak dira: Onda labur-rari frekuentzia garaia dagokio eta onda luzeari frekuen-tzia bajua.

3.- Frekuentzien arabera onako sailkapen au egiten da:

a) 3-30 KHz	VLF	Frekuentzia oso bajua, Uin oso luzea (Onda muy larga)
b) 30-300 KHz	LF	Frekuentzia bajua, Uin luzea (Onda larga)
d) 0.3-3 MHz	MF	Tarteko frekuentzia, Tarteko uina (Onda media)

e) 3-30 MHz	HF	Frekuentzia garaia (Onda corta)
f) 30-300 MHz	VHF	Frekuentzi oso garaia
g) 300-3.000 MHz	UHF	Frekuentzia "ultra" garaia
i) 3-30 GHz	SHF	Frekuentzia "super" garaia
j) 30-300 GHz	EHF	Frekuentzia "extra" garaia

Irratigintzaren asieran frekuentzi oso bajuak (LF eta MF) erabiltzen ziran, batez ere uinak aire geruzetan eta lur-rean jauzkatuz edo errebotatuz, emondako indarraren arabera oso urrun eltzen direlako. Baina oztopo asko dago alako kasue-tan: aire geruzetako itxura radioelektrikoa eguraldiaren ara-bera, gaua eta egunaren arabera, eguzkiaren egoeraren ara-bera, aldatu egiten da, jauzketa edo errebotea aldaraziz. Gai-nera jauzketa ori ez da bardina lur gainean izan edo itsaso gainean izan. Beraz era onetako komunikazioak ez dira ziu-rrak. Teknika aldetik indar eta antena oso aundiak bear iza-tren dira. Zenbat eta onda laburragoa, au da zenbat eta fre-kuentzia garaiagoa, komunikazioen eremua murriztagoa da, orregaitik 30 MHz-etatik gora eremua zabaltzeko errepika-tzaileak edo errepitidoreak bear dira (telebista, ertzaintza, osakidetza, taxiak...). Baina bere alde ona ere badauke. kra-tiak asko txikitu daiteke eta antena laburrak erabili leitekez. Onen adibidea esku-irratia edo Walky-Talkiak dira.

Gainera VHF-tik gorako ondak ez dauke jauzketarik edo erreboterik aire geruzetan, zearkatu egiten dabez. Onda ori berriz lurreratzeko saiaketak eginez, irratizaleak leenengo, eta gero Estatu Batuetako militarrek, ilargiagaz egin ebezan frogak, emaitza naiko onak eta itzaropentsuak lortuz. Ilargia urrunegi dagoanez eta bere lurgaina ere ez danez leuna, bes-te zerbait bear zan: Satelitea. Beraz satelitea geienetan ez da oso altu dagoen errepikatzaile bat baino, naiz eta kasu ba-tzuetan seinalearen sortzaile ere izan daiteken. Errepikatzaile eginkizunen artean onelako serbitzuak emoten dauz: Tele-bista, irratiak, zaletuen, enpresen, militarren, e.a.-n komuni-kazioak, urrutizkinak... Satelite seinale sortarazleen artean ezagunenak argazkilariak dira, eta onen artean eguraldia igartzen laguntzen dabena METEOSAT bezelakoak. Mota onetakoak dira ere lekutzerako erabiltzen direnak, adibidez GPS sistemakoak.

Satelite mota bi dagoz, kokapena kontutan artuta: Geldi-korrek, beti Lurreko puntu bardinaren gainean dagozanak eta orbitalak Lurrari biraka dabilzenak, geienak poloetatik igaroz. Komunikazioetarako leenengoak dira interesgarria-goak. Gorago aipatutako geienak orralakoak dira.

Baina frekuentzi garaiak aulak eta makalak diranez, eta indargarriak erabiltzea arriskutsua danez, alako uinak artze-ko antena bereziak bear izaten dira, direkzionalak edo nora-bide bakar batekoak. Onen adibide dira telebista antenak (zein VHF zein UHF-koak) eta parabolikak.

Sailkapen eta erabileraren arabera, ondoko orrian dauka-zue zelau dagoen legeztatuta eta zer aurkitu daiteken fre-kuentzia ezberdinetan.

Komunikazioek euki dabena azkenengo iraultza bearbada, informatikaren sarrera izan da, lan asko aurreratu eta erra-kuntza asko galerazten dauazalarik. Ori ondotoxio ikusi gein-ke irrati mota desberdinen erabilera.

Irratigintzan, beste batzuren artean eta erabilenak baino ez aipatzearen onako mota oneek aurkitu geinkez:

a) **Telegrafia:** MORSE kodea erabiltzen dau. Zaarre-na da, baina gaur egun oraindino erabilera aundikoa.

Gaur egun irratizale baimena lortzeko azterketan MORSE jakitea eskatzen da. Trasmisio mota onetan emole bakoitzak darabilen abidaura oso desberdina izan daitezenez eta bakoitzaren gaitasunaren pentsuan ez izteko, informatikaren laguntzaz, gaur egun oso erreza da mezua bialtzea zein artzea.

b) **Teletipoa:** Telegrafiaren antzerakoa da, baina ez da MORSE koderik bear. Emoleak idazteko makina moduko batez bialtzen dau mezua eta artzaileak zuzenean idatziz bere makinan jasoten dau. Aurrekoa baino errezagoa da erabiltzeko, MORSE jakin barik ere erabili daiketelako, baina baldintza tekniko geiago daukaz, irratiaz aparte. Dana dala, aurrekoaren modura, ez dagoenez mezua oso osoan elmugara elduko danaren ziurtasunik, informatikaren laguntzaz beste sistema batzuk erabiltzen dira PCA-KETT eta AMTOR bezelakoak.

d) **AMTOR:** Irrati emoleak mezu zati bat bialtzen dau, eta gainera bialdutakoak zenbateko luzeera daukan adierazten dauan kode bat egiten dau. Irrati artzaileak jasotakoa neurtu eta kodea sortu ondoren emoleari bialtzen deutso. Kodeak bardinak badira, irradi emoleak zati barri bat bialtzen dau, baina desbardinak badira aurrenekoa bialtzen dau balliz, arik eta kode biak bardinak izan arte. Onela mezua oso-osoan eltzearen ziurtasuna % 100 ez bada ere, euneko aundia lortzen da. Arintasun aldetik idea bat egiteko, orrialde bat bialtzeko minutu pare bategaz (edo gitxiago) naikoa da.

e) **Fax eta argazkiak:** Adibidez eguraldiarenak. Oraingoan ere informatikaren laguntza bear da seinalea sortzeko eta gero argazkia edo dana dalakoa erakusteko. Eguraldiaren argazkia onela egiten da: Sateliteak ikusten dauanaren argazki bat bialtzen deutso lurreko bere irradi arduradunari. Onek argazkiari mapa bat itsatsiz berriz itzultzen dautso sateliteari gero beronek berriz lurreratu daian eguraldi saioetan eta egunkarietan ikusten dugun moduko itxuraz. Aurreko irratigintza motatan edozein frekuentzi baliogarria bada ere, onelako onetan frekuentzi oso garaiak erabiltzen dira, eta jakina, geinetan antena parabolikoak. Beste kasu batzuetan eskuz eginiko idaztiak zein mapak lurgaineko irratiez zabaltzen dira HF frekuentziak erabiliz.

d) **Itza edo/eta doinua:** Foniaz ezagutzen da au. Leenngotan AM onda mota zan geinetan erabiltzen zana. Baina aspaldion AM galdu ez dan arren, beste onda mota bi erabiltzen dira sarriago: SSB eta FM.

AM, batez ere irradi komertzialek erabiltzen dabe frekuentzia bajuetan, tarteko uinean ("onda media" deritxena) eta uin laburrean ("onda corta" deiturikoa) aldetik. Beste era bateko komunikazioetarako (irratizaleak, itsa-ontziak, egazkinak, e.a.) batez ere HF-n komunikatzen diranean SSB darabile, bere mota bietan USB (goiko banda bakuna) eta LSB (beeko banda bakuna). AM-ren uin bardina da, baina uin osoa erabili bearrean erdia baino ez da Waltzen, bertan uin osoa bialtzeko bear dan indar guztia bilduz, orrela indarra laukotu egiten denez, urrunago eltzea lortzen dalarik.

VHF eta UHF-ko komunikazioetan erabilena, salbuespenak aparte, FM da. Askoz ohea da, argiagoa, nolakotasun edo kalitate aundikoa ulertzeko moduan. AM-ren kanala baino askoz zabalagoa denez, ez da erabilgarria beeko frekuentzietan. Kanalaren zabaltasuna eta doinua -

ren kalitatea baieztatzeko ez dago besterik AM eta FM irradi komertzial bi konparatzea baino.

e) **Telebista:** Irratiaren onda berberak erabiltzen dauz doinua eta irudia garraiatzeko. Gitxi gora beera 1.930-n asi ziran telebistazko leenengo emonaldiak, zuriz eta baltzez. 1.953rako Eurovision sortu zan, beraz European zabalduta egoan, naiz eta leen esan dodanez munduko bigarren gerratea galga edo freno aundia izan zan beronen edatzerako. 1.967rako margoetako telebista agertu zan European.

Arazo teknikoen artean kanal bakar batek zazpi bat MHz bear dituala dago irudiak ala eskatzen dabelako. Orregaitik kanalik geienak UHF-n dagoz lekututa, eta orrexegaitik dago sateliteen eta errepikatzaileen berrizana.

Gaur egun leia gogorra dau irratiaz, ia beronen bes-teko azkartasuna dualakoa eta gainera irudien laguntza. Dana dala irratia zuzenezko emonaldi bat egiteko ez dau telebistak beste makina bear, are geiago, urrutizkin mogikor batekin naikoa da. Ostera, telebistak itzelezko tresna multzoa mogitu bear dau, ori azpiegitura kontutan izan barik (lekua, argitasuna e.a.) Askoz ere garestiagoa da telebista saio bat irradi saio bat baino, batez ere estudioetatik kanpo egin ezker, baina beste alde batetik ere errentagarritasun aundiagoa atara leikio. Ogei segundutako iragarki batek askoz geiago balio dau telebistan irradian baino. Oraindino ba, borroka luzea geratzen da komunikabideon artean, naiz eta nire ustez etsaiak barik osogarriak diran.

Orain arte jarri dodazan moten artean beste bereizketa bat egin bear da. kratigintzaren elburuetariko bat mezuak aalik eta azkarren eltzearen ziurtasuna dan arren, sarritan beste ziurtasun bat ere geitu gura jako: Bapestea edo erderazko "confidencialidad" deritxona. Au lortzeko kodeak erabili dira aintzinatik. Euskera bera ere orretarako erabilia izan da Estau Batuetako itsas-armadako ontzien artean bigarren munduko gerratean, Pazifikoko gatazkan.

Beste batzuetan, edo izkiak zenbakiaz aldatzen dira, edo itzak trukutzen dira... Gaur egun ere arrantzaleak antzerakoak darabilez. Esaterako: Jerusalem 20 dinoanean legatza 3 tonelada izan daitezke edo atuna tonelada erdi. Batek daki.

Barriagoen artean, itxura aldatuz, seinalea kodifikatzea dago. Kasu onetan bearrezkoa izaten da dekodifikatzaile bat seinalea jatorrizko itxurara biurtzeko, ulertzeko moduan jartzeko. Adibide gisara telebistako Canal+ jarri geinke. Bapestea ziurtatzeko naiko erabilia da baita erderaz "seccrafonia" itzaz ezagutzen dana. Batez ere aozko komunikazioetarako da. Aurreko kasuaren antzera gertatzen da prozesua, baina oraingo onetan miloika aukera egotean kodifikatzeko, oso zaila da alako komunikazio bat deszifratzea. Adibide modura zera esan daiketsuet: Emonaldi oso labur batdeszifratzeko, alako tresnak egiteaz arduratzen dan lantegi batek, grabaketa oso on batez gain, iru edo lau ilabete bear dauz, eta ez dau emoten lortuko dauanaren ziurtasunik.

Ezin dot ere alde batera itzi komunikabide oneek beragaz dakarrezan arriskuak. Ez nabil soziologoek zalatzen dabezan arriskuei buruz, medikuntzak zalatzen dabezenei buruz baino. Aurrerapen askok ain barriak izanik ez dago argi zelango eragina euki leikeen gure gorputzean. Badaezbada telebistatik oso urbil ez egoteko oartzan gaitue, eta emisoreen indargailuetatik eta antena emoiletatik urruntzeko dinoskue

(batez ere frekuentzia garaietakoak badira). Baina arrisku asko oraindino susmoan baino ez dagozan arren, ortxe dagoz. Aspaldion urrutizkin mugikorrek euki daikezan eraginak buruko gaisoen sortzaile modura (minbizia, tumoreak ikusmena galtzea...) naiko zabaldua dagoz. Kontutan izan, indar gitxikoak diran arren, frekuentzia 900 MHz inguruan dagoala, eta berba egiterakoan tresnaren antena buruaren ondoondoan egoten dala. Baina negozio orrek diru multzo ikaragarriak mugitzen dauazanez, azpitik interes asko eta aundiak dagoz; orregaitik jakintsu batek arriskua dagoala zalatu orduko, bereala agertzen da beste jakintsuren bat aurrekoak esandakoa ukatzeko. Dana dala, esan dodanez, susmoa ortxe dago.

Beste kasu batzuetan susmoa baino geiago da. Estatu Batuetan, trafiko ertzainek erabiltzen eben abiadura ikustatzeko ezkuko erradarra, birmoldatu edo kendua izan da ziztortasuna, sexu indargetasuna sortzen ebelako erabiltzailearengan. Erradarraren lan-ITekuentzia oso garaia da.

Beste gaiaren antzera, onetan ere lortu dan azkartasuna ikaragarria izan dala esan geinke. Lepantoko gatazkaren barria Felipe Ilnarengana irabazi ondoren aste batzuk beranduago eldu zan, naiz eta gatazka onetan Mediterraneoko nagusitasuna erabakitzen zan. Gaur, oster, Lurraren beste ertzean gertatzen dana bizi-bizian entzun eta ikusi geinke. Vietnam-eko gudaren ostean ez dago gertakizunik berriemole edo kazetari barik. Berau izan zan ia zuzenean Lurrak bizi eban leenengo guda. Azken aldietakoak, Kuwaitekoa, zein Somaliakoa, zein Yugoslaviakoa ia zuzenean, bertan bagengoz bezela bizi geinkez. Orrela izan arren, ez dabe afaltzeko orduan gosea kentzen, eta kentzearen arriskua balego, ez dago arazorik, telebistaren telemandoa (au bai dala smakizuna!), dinoanez ba, telemandoa artu eta botoiak eraginez beti aurkituko dogu leiaketa inusenteren bat edo abeslari zein aurkezleren baten aurpegi irribartsua.

Gai onei buruz ainbat geiago esan daiteke eta ziur nago

ITXAS AURRIAN

ZABALA'TAR ENRIKE

Gazte gazterik itxas aurrian
artu zenduan mintzaira,
olatu eder, indar betiak
sar eutzuen biotzera;
egiz ederra, unkiagarria,
izamaren deadarra,
gora Bakio, euskal itxaso
seme jatorren kabia.

Euzko seme lez onartu zendun
euzkotarren arimea,
izkuntza bidez zabalduko
lur onen argibidea;
gora Bizkaia esango neuke,
goratu gizontasuna,
izkuntz ederrak zabal dagian
Bizkaiko edertasuna.

Paulin

zuetariko bataren batek garrantzitsutzat daukana ez dodana aitatu ere. Gai zabalegiak dira epe labur baten dana ikutzeko, beraz, beti zeozer aaztu bear.

Esan dodan guztiaz jendea ez aspertzea lortu badot, nire elburua ere lortutzat emon daiket, ez dot gura izan inola ere jakintsu baten ikasgaia emon eta, beste arrazoi batzuren artean izan ere ez nazalako. Bataren bat nire berbaldi onegaz aspertu egin badot edo denpora galdu dauanaren ideiaz badoa parkamena eskatzen deusat eta eskerrak emoten deusadaz etortzeagaitik beste guztiei bezela.

Enrique Itxasalde

ZABALA 'TAR ENRIKE ORAINGO AURRERAPENETAZ MINTZATU ZAN ATZO, BILBOKO EUSKAL ASTEAN

BILBAO. Euskerazaleak Alkartea'k antolatu dauan astearen barruan atzo izan zan irugarren eguneko itzaldia.

Zabala'tar Enrike izan zan Izlari.

Asieran Zubiri'tar Iñaki'k egin eban izlariaren aurkezpena: Zabala'tar Enrike Bakio'tarra eta ikastolako irakaslea dogu Bizkai'ko euskerearen bultzatzaile beroa eta aldizkari batzutan idazle ugaria ta bizi-bizia. Bere idazlanak, beste aldizkari batzuren artean "Zer" gure aldizkarian idazten dauz.

Itzaldi onetarako artu dauan gaia gaurkotasun aundiakoa izan da. Nok ez daki mundua aspaldion txiki biurtu jakula? Lenengo ekiñaldiak, ondoren aundi barik, antxiñatik egiñak izan arren, oraintsu egin dira aurrerapen ikaragarriak. Bai bultzak eta bai berebillak gaur abiada aundiak lortu dabez eta lenago sinistu be egin eziñekoa zan gaur egazkiñak lortu daben aurrerapena. Orreri esker, mundu guztira errez eta arin joateko aukerea izaten dogu. Gaur mundu osoari bira egiteko lenagoko aldean azkartasun aundia daukagu.

Eta ori baiño arrigarriagoa da gaur alkar-izketak izateko daukagun erreztasuna. Gure urrutizkiñean zenbaki batzuei eragitea da naikoa munduko edozein lekutara itz egiteko. Eta ba-dagoz urrutizkiña baiño be egokia-goak, diran beste era batzuk izarbelak edo satelliteak bide dirala, millaka kilometro dauzan bidea egin ondoren laster eltzen da gure abotsa edonora.

Eta oraindiño aurrerapen aundiagoak izango dirala uste dogu.

Idazkiak bialtzeko be aspaldion aurrerapen aundiak lortu dira. Benetan gure mundua txiki biurtu jaku.

Entzuleakaz alkar-izketa labur bat izan ondoren, Paulin olerkariak bertso batzuk egin eutsozan arintasun pozgari oneri.

Amaitzeko, Zubiri'tar Iñaki'k gaurko gaia ta izlaria iragarri ebazan. Gaur Etxaburu'tar Asier gazteak egingo dau bere itzaldia. Gipuzkoarra ta lege-iztiko ikaslea dogun gazte onek euskerea bera izango dau gai eta bere ikuspegitik euskerearen aurrerapenerako aolku batzuk emongo daukuz.

Euskerazaleak

ARGIUNEAK

VITTORIO DA SICA FAXISTA



Mussolini'ri bere garaian firma bat eskatu eutsolako, faxista omen zan. 1958'an, Letran'eko Ikastola Nagusian, auxe galdetu euskun irakasle batek:

—Zenbat biztanle dauz Italia'k?

—Berrogeita bost milloi. Erantzun eben ao batez ikasleek.

—Ez, ba. Orain larogeita amar milloi dauz.

—Zergaitik?

—Lenago berrogeita bost milloi faxista eta orain, berriz, beste berrogeita bost antifaxista, orra larogeita amar.

— Eguzkia nora, zapiak ara.

SAN MARTIN

—Sanmartiñetan iltzen ebezen txerriak garai batean.

—Orain, berriz, ez dago txerririk etxeetan.

—Aragietan be ez dabez iltzen.

—Lenago ez zan txerrigabeko etxerik errietan.

—Koipe eta urdai ederrak eltzeak eta egozkariak gozatzeko.

— Geure etxera be ekartzen ebezen txerri-erregaloak...

— Ba, txerri-erregaloak ordaiñetan izaten dira.

—Ba dakik zer gertatu dan aurtan Gipuzkoa'ko erri batean?

—Zer?

—Joan da Praisku arategira eta eskatu dau odoloste bat; gero, urdai eta bizkar-ezur zati bana, gero, solomo apur bat.

— Zertarako ainbeste zati?

—Bildu dauz guztiak asa-ostoa batean, asa-ostoa aldizkari orrietan eta guztiak Eroski'ren boltsa batean sartun.

—Txotxo, esan deutso arakiñak, badodaz orrek baño paper obeak zati orrek biltzeko...

—Ez, ez, laga bakean.

— Zertan zabiltzaz ba?

—Nere andreari au esan nai deutsot: Bere baserriko txerri-erregaloak direla eta eskerrak emango deutsez eta, txerria il berria daben lez, bear ba'da, bizi gariela akordatuko diraz.

MARKINA'KO EPAITEGIAN

Epailleak Lekitto'ko arrantzale bateri:

—¿Es usted mero testigo?

Itzultailleak arrantzale lekitarrari:

—Ia meru zarien?

ARKAKOSOA (ARDI) ETA ELEFANTEA

—Gure antzera jokutzen dauala Jainkoak usten dabe askok.

—Nolan jokatuko dau ba?

—Arazo oneri buruz, India'n, ipuin bat kontaten dabe.

—Zer ipuin?

—Joan omen ziran bañoa artzera alkarregaz arkakosoa, edo ardia, eta elefantea. Uretan dagoazala, esan deutso arkakosoa elefanteari:

— Urten uretatik.

— Esan ei dazu zergaitik.

— Irten da gero esango deutsut.

Irten dau elefanteak patxara aundiagaz:

— Eta?

— Uste neban neure bañoako jantzia eukezula soiñean.



OTSOA ETA ARKUMEA

—Bein, errekatxo batean, ura eraten egozan otsoa eta arkumea.


Otsoak arkumeari:

—Neure ura zikintzen zagoz.

—Zeure atzaparez zikindutako ura dator ona, zu gorago zaudelako.

- Txo, ori Esopo'ren ipuiña da...
- Ipuñetan egi mardulak gordeten dira.
- Ori be, alan da.
- Ona amen Real Academia de la Lengua Española'ko lendakariak zer esan dauan: Euskereak Gaztelania jango dauala.
- Sekulan orrelakorik...! Arkumeak otsoa jan...?!
- España osoan Gaztelania bakarrik dok española eta ez, beste inzkuntza guztiak.
- Beste guztiak, zer dozak ba? Burua naasten jake.

OLAZAR = ERROTABERRI



- Sebastiana Olazar'ek sekulako irin ona ataraten omen dau.
- Bai, txo, taloak erreteko oberik ez da iñun.
- Eta, nun lan egiten dau andre onek?
- Gamiz'ko Errota-berri'n. Morokil ain ederrik ez da egiten iñungo iriñagaz.

Zer gauza polita eta bitxia!

Morokilla?


Bai, morokilla eta taloa be bai; baña, Olazar Errota-berri'n egotea orixe da benetako gauza bitxia eta arrigarria.

- Ez dau sutu entendiduten ezer be.
- Bai, gixona, bi izen orreik alkarregaz loturik auxen esan nai dabe: Lenengo, etxe ori ola zala eta geroago ola zaarra errota biurtu ebela, errota berri.
- Zelan dakixu zeuk ori?
- Lekitarrena erantzungo deutzut: "Dakixenak, baki-xela".
- Eta "estakixenak"?
- "Ikasiko dauala".
- Bañan, irakasten ez dadeustatu, ez dot ezer be ikasiko.
- Amaseigarren eunkian, Ameriketako a asi zanean, ola asko sortu ziran geure erreka ondoetan, barkugintzarako burnizkiak egiteko...
- Ameriketa eta baita be baletarako ontziak egiteko.
- Bakallautarako be bai.
- Olak josteko iltzeak, aingurak arpoi-muturrak eta abar: burni askotxo bear zan barkugintzarako.
- Baña, baja-marra etorri zanean, zer?
- Bai, amaseigarren eunkiaren erditik aurrera, geroz eta barku gutxiago, ez zan ez bale ta ez bakallau...
- Eta, orduan asi al ziran olak errota biurtzen?
- Krisis galanta geure erreka-ondoetan: krisia ez da gaurkoa bakarrik, tarteka-tarteka agertzen dan mamu bat, baizik.
- Olagizonak errotari biurtu bear: Ola zaarra, Errota berri.
- Garai garaian, betiko leloa.

GERNIKA BERRIRO

1977'ko Martiaren 13'an N.S. Chernykh jakintsuak izarzati (asteroide) bat aurkitu eban, 50 kilometro ebazala, barruko neurrian, alde batetik bestera, eta "Gernika" izena ipiñi eutsen.

- Ba ekian Gernika zanik, ala?
- Mundu osoan zabaldu ziran Franco'ren gezurrak; baña egiak ere bai...
- Franco'ri sinistu eutsoen geienak.
- Urdiñak, bai; gorriek, ez.
- Dana dala eta dena den, orra Gernika zeruetan idatzita betirako.



BARANDIARAN JOXEMIEL: OMENALDIA

- Azillean egin deutsoe D. Jose Miguel Barandiaran'eri omenaldi bat Donosti'ko Belodromoan.

- Entzunda daukot, bai.
- 2.000 (bi mila) eskoleta-ko gaztetxoek abestu eutsoen abesti-sail bat.
- Bai, Eskudero'k musika eta Barandiaran'en liburuetatik itzak.

- Ona lenengo abestiaren berbak:

LIÑOAREN NEKEAK:

"Lenengo sorotik atera
 gero leortu
 gero trangatu
 gero sapindu makillakin edo buztarriakin
 gero zurezko trengesekin trangatu
 gero txarrantxatu
 gero ardatzean jarri
 gero iruin
 gero astalkatu
 gero egosi
 gero errekan garbitu
 gero leortu
 gero arildu
 gero eio
 gero josi edo soiñeko biurtu
 gero erabilli
 gero ausi
 gero...



Bartolo Arropaingo

ETA AURTEN ZER? ZAARRAK BERRIALA BERRIAK ZAARTU?

Ongi etorri 1.995-a eta ondo etorriak 1.995-ra.

Urtero bezafa asmo barriak, iazkoak baino obeagoak buruan, baina oinak airean.

Orain dala urtebete, gitxi gora-bera, orriafde oneetatik egutegi barria itxaropentsu begiratzen neban, Urtarrifagaz batera, urte afdeketagaz batera, arazo pifa bat konponduko bafira fez.

Baina ez, BBK-k emondako bizkaterazko "takoari" udagoienez zuaitei gertatzen jakenez orriak jausi jakoz, urtebetez bat geiako ospatu dogu, ufe batzuk galdu doguz, tximur batzuk irabazi, baina askoz geiagorik ez da gertatu; ia bestefako guztiak antzera diardue.

Mafkoak eta barreak, lagun barriak ezagutu eta zaarrak alden, danatarikoa izan dogu. Komunikabide guztiak urtean zear gertatutakoak kontatu deuskuez gaboniffaren amaieran: Nork irabazi dauan ez dakit zein txapefketa, afak aktore gafanta besteko emakume ederrarengandik banatu zein afkartu egin dafa, andiko edo emendiko gizon edo emakume ospetsuak mundu au itzi dabela... kasua da egunkari, telebista eta irratiak danak ibifi kontuak ataritzen. Istoriaren aterean bat sarratu gurean dirudie.

Baina nik ez dot konturik atara gura.

Diru kontuak ondo dagoz fantegi eta abarretan, baina bizitza atzera baino ez begiratzea etorkizunaren atea sarratzea da.

Ondo dago noizbeinka atzekafdean itzi dogunari begirada bat botatzea, jazotakotik (ona zein txarra izan) beti ikasten da zoezer eta. Baina zertarako bafio dausku ikasi dogun orrek etorkizunari oinarriak jartzeko ez bada?

Ezezkorrak urte barriak ezer ez dauafa konponduko esango dau, eta arrazoi faftarik ez dauka, egutegiak berak ez dau ezer egiten eta, geure faguntzaren bearra dauka.

Gabonetako foteria jausi ezik, "urte barria, bizitza barria" guzur gafanta baino ez da. Bizitza egunero zertzen da, ez dau ez Urtarrifak ez Urrifak ez Orrilfak egiten.

Ez da iragarlea edo azitia izan bear ezezkorrak buruan daukazanek asmatzeko: Onek ez bada besteak irabaziko dau andiko txapefpeta, urbilean ez bada urrunean gudaren bat biztuko da (edo amaitu esango neuke), if ere batzuk ifko dira (jaioko dira barriak, abestiak dinoanez)... dana bardin.

Eta dana desbardin dinot nik.

Badakit edo ia ziur nago ez dafa mundo maifan betiko zorientasuna ekarriko dauskun ezer asmatuko, negarrak, mafkoak, oinazeak jarraitu egingo dabe, baina eurekaz batera umeen irribarreak, efduen barreak eta agureen umore ona.

Dagozan eta egongo diran gauza txarrak desagertu egingo direfa esatea ez da baikorra izatea inusentea baino. Beraz, non ezkututzen da zorientasuna?

Nire ustez zorientasuna eguneroko gauza txikietan aurkitzen saiatu bear gara, ez egun bateko gauza aundietan. Ingu-ruan daukaguz zorientsu biurtu gaikeezan jende eta gauzak.

Zergaitik edo agaitik San Pedroren bizarra urbif ikusi dabenek edo gaisorik dagozanek sarritan esaten dabe ori, eta ni (dakidafa beintzat) bata zein beste egoera ezagutu izan ez arren, eurekin bat nator.

Alako egoerari itxaroten egon bear dogu ondorio orretara eftzeko, astotik jeisteko?

Mundua zabafegia da astoari aurrera baino ez dagian begiratu jartzen jakozan zerakaz ibiltzeko. Ez dogu "katafekoaren" bearrizanik urbifean dagona ikusteko, begiez begiratzea naikoa dogu. Etxe alboan aurkitu geinke poztasuna eta zorientasuna, bifatu ezker.

Ez dot filosokerietan jausi gura era askoz gitxiago inori zer egin bear dauan esatean.

Jaunak libra naiafa orretatik!

Itxaropenari feio bat zabafteza baino ez da nire guraria, eta orretarako geure kabuz eta ez inongo gaisotasunak ez ezbe-rrak eragindako gefdiune bat egitea, iru edo fau gafdera erre-zak egiteko geure buruari: Nora goaz? Zetan gabiftz? Zer egiten dogu gure ingurua obetzeko?

Ezagutzen ete dogu gure ingurua? Ez ete da eguneroko gauzekaz oporretako ibifaldiekaz gertatzen dana? Urruneko lurraldeak ezagutzen joaten gara, Londres edo Pariseko xeetasunak ezagutzen doguz, baina gero Gizaburuaga edo Amoroto non dagozan esateko ez gara gauza.

Guzti onek aintzinako abaderen baten amaigabeko mezatako sermoiak iruditu arren, ez dot esan inork ez dakian ezer, nire burutapenak ozenki eta idatziz jarri baino.

Baina idazten nagoen artean neure buruari gafdetzen nago: Ba ete naz gauza esaten dodana nik neuk betetzeko? Ala "nik esaten dodana egizue eta ez nik egiten dodana" agertzen nago?

Erantzuna urte bete barru Jaungoikoak eta deabruak (onek ere gaurko munduan zer esan asko daukafa dirudi eta) nai badabe, baina ez daigun mundu obeago bat ikustearen itxaropena gafdu. Egin ere, bakoitzak gure ingurutxo obetuz, azkenean mundua obetu geinke.

Enrike Itxasafde

NORK EGIN LEIKE?

Lau notiñen kondairatxo bat dogu. Lauren izenak, ots, Bakoitxa, Bateren bat, Edozein eta Inor be ez.

Bear garrantzitsu bat egin bear zan eta Bakoitzari eskatzen jako egin dagiafa. Edozein jauna ziur egoan Bateren Batek egingo ebafa, baiña Inork be ez eban egin.

Ori zafa ta Bateren Bat mindu zan, Bakoitzaren bearra zafako.

Bakoitzak ofdoztu eban Edozeiñek egin feikeafa, baiña Inor be ez zan konturatu Bakoitzak ez ebal egin.

Azken baten jazo zan Bakoitzak Bateren Bateri akar edo agirika egin eutsola Inork Be ez ebanean egitan egin, Edozeiñek egin feikeanean.

Gazteleratik euskeratuta
Arregi'tar Josu'k

EUSKER1Z7LE7OCK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO



Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbaridiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan dirauelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta ori
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Baiña leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.

Betidanik.

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa